

VYGOTSKI

Vigotski psikologo, garapenaren psikologian psikologo esanguratsuenetakoa bat eta neuropsikologia sobietikoaren buruetakoa bat. 1960. en hamarkadan izan zen ezagutua eta deskubritua baliabide akademikoen aldetik, mendebaldeko munduan.

Bere obra anitzarengatik eta bere heriotza goiztiarrengatik izan da Mozartekin parekatua psikologia mailan. Bere obraren ideia nagusia, gizakien garapena elkarrekintza sozialaren terminoetan soilik izan daitekeela ulertua esan nahi du.

Garapenak datza, instrumentu kulturalen barneratzean (hizkuntza bezalaxe), hasiera batean gureak ez direnak baina gizataldearen baitan daudenak.

Garapen hurbileko eremuak espazioari dagokio. Haurrak jadanik dituen abileziak dira eta ikasi ditzakeenak heldu baten bitartez. Garapen Hurbileko Eremua (GHE) kontzeptuak esan nahi du, haurraren abileziak eta helduaren erlazioaren artekoa. Lehendabiziko pausua, haurrak lan egin dezakenean eta ariketa edo eta arazoak konpondu ahal dituztenean beste baten laguntzarik gabe. Garapen Potentzialaren maila da, haur bati heldu batek gidatzen dionean edo beste norbaitek laguntzen dionean. Eta bien arteko desberdintasunari Garapen Hurbileko Eremua deitzen diogu. Heldu batek (edo beste berdin batek, ikaskide bat izan daiteke) bitartekari lana egiten duenean haurra eta eginbeharraren artean, honi andamiajea deitzen diogu. Azken kontzeptu hau Jerome Brunerrenengatik izan da nahiko garatua

Vigotskyren obraren beste ekarpen bat zera izan da, hizkuntzaren garapenaren eta pentsamenduaren inter-erlazioa. Guzti hau bere liburuan ikusi dezakegu hobeto garaturik "Pentsamendua eta Hizkuntza", bertan barne konexio izugarria ikusirik, ahozko hizkuntza eta kontzeptu mentalen garapenean.

Garapenak datza, instrumentu kulturalen barneratzean (hizkuntza bezalaxe), hasiera batean gureak ez direnak baina gizataldearen baitan daudenak.

Oso garrantzizkoa da goi funtzio psikologikoen garapena ulertzeko, subjektuaren fenomeno psikikoa (internalizazioa). Prozesu hau ulertzen da, dibertsitate handiko operazio sozio-psikologikoei esker intererlazio sozialetik abiatuz. Operazioen dinamika honetan, kultura subjektuan beran jabetuz doa. Subjektuaren jarrera indibidual eta kolektiboaren sorrera sozial eta kulturala, adibide soil bat da ikusteko zer nolako garrantzia duen arauen, baloreen, eta abarren internalizazioaren fenomenoak. Non, gizartearen garapen eta eboluzioa errepresentatzen den eta Vigotskyk honela definitzen du: "Formazio bikoitzaren legea edo garapen kulturalaren lege genetiko orokorra".

Lege honek zera dio, haurraren garapen kulturalan, funtzio oro birritan agertzen dela: maila sozialean eta beranduago, maila indibidualean. Lehendabizi, pertsonen artean

(interpsikologikoa) eta geroago, haurren barnean (intrapsikologikoa). Funtzio psikologiko guztien oinarria gizabanakoen erlazioetan datza.

Internalizazio prozesu honetan, ezin daiteke ahaztu bitartekaritza instrumentuak duten paper garrantzitsua, eta medio soziokulturalari esker daudela sortuak. Vigotskyren perspektibaren ustetan garrantzitsuena, hizkuntza da (ahozkoa, idatzia eta pentsamendua). Internalizaziotzat jo dezakegu fenomeno sozialen transformazioa fenomeno psikologikoetan, erraminta eta zeinuen bitartez. Transformazio psikiko hauek forma honetan sintetiza ditzakegu:

- Kanpoko aktibitate bat suposatzen duen operazio bat, eraiki eta barnean hasten denean.
- Prozesu interpertsonal bat ezaugarri intrapertsonal baten transformatzen denean.
- Prozesu interpertsonala prozesu intrapertsonal bihurtzean, gertaera ebolutibo batzuen emaitza delarik.

Vigotskyren aburuz, internalizazioak prozesu autokonstruktiboari eta berreraiketa psikikoari egiten dio erreferentzia. Internalizazio fenomeno honen garapena sujetuaren lehenengo etapan ematen da, bere jaiotzarekin batera, familiarekin eta eskolarekin interakzioan. Esperientzia hauek gutxinaka-gutxinaka prozesu mentaletan transformatuz. Internalizazio prozesu hau Maria Montessoriren lanarekin konparatu dezakegu, 0-6 urteko haurren adimenari, Adimen Zurgatzailea deitzen dionean; adimenak zurgatzen duena giroa, ohiturak, arau sozialak, hizkuntza, kultura eta lekua dira. Planteamendu honen originalitatea, indibidua eta bere erlazio sozial konplexuak dira eta beraien arteko erlazioa barne prozesuekin eta bitartekaritza instrumentuen domeinuarekin zerikusia dutela esan genezake. Inportantzia ematen diote baliabide soziokulturalei eta neurketa instrumentuen autoformazioari. Beraien artean, pentsamendua, analisi-sintesi kapazitatea, argudioa, erreflexioa edo abstrakzioa besteak beste. Prozesu interpertsonal bat, prozesu intrapertsonal batean transformatzen da, honen emaitza gertaera ebolutibo luzeak eta kulturaren barneratzeak, pixkanaka, jarrera indibidual eta amankomun batzuetara gidaturik. Prozesu hau errepresentagarria da Vigotskyren teorian. Gizartean ematen da, beraz, dialektikoa da baina maila altu batean. Laburbilduz, Vigotskyren teoriaren ustetan barne prozesuak pertsonalitatearen sortzaileak dira, kontzientzia indibidual eta sozialarenak. Goi prozesu psikologikoen garapenaren oinarrizko prozesuak dira, non, bitartekaritza instrumentuek hartzen dute parte (bereziki, hizkuntzak). Internalizazioaren prozesu psikikoak, esperientzia sozial bat hartzen du kontutan (haurren eguneroko hizkuntza soziala, haur hezkuntzan), pixkanaka erabilpen intelektualaren hizkuntzan transformatuko da (haurren eguneroko hizkuntza, pentsamenduetan transformatuko da), tarteko etapa bezala izanik hizkuntza egozentrikoa.

Hobekuntza honen heinean, sujetuak bere autonomia edo independentzia hartuko du objektu errealekiko. Internalizazioaren azken fase honetan, hizkuntza eta pentsamenduaz hitz egitean haurrak aukera du hitz edo kontzeptu baten orokortzeak egiteko. Hau lortzen duenean hizkuntza barneratua dagoela esan daiteke. Bere funtzioa eraldatua baitago.